



LEGE-PROIEKTUA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LANBIDE HEZIKETARI BURUZKOA.

ZIOEN AZALPENA

Ezagutzan oinarritutako ekonomia bat eraikitzea da Europaren eta, beraz, EAEren erronkarik handiena. Eredu ekonomiko berri hori Europar Batasunak zehaztu zuen, 2010ean, hazkunde zentzuzko, jasangarri eta integratzaile baterako "Europa 2020" Estrategian.

Helburu horiek lortzeko, zailtasun handiei aurre egin behar zaie; halaxe adierazi du Europar Batasunak estrategiaren balantzean, zeina 2014ko martxoan eman baitzen argitara. Nolanahi ere, balantze horretan azpimarratu du ezen estrategia hori hartzeko arrazoiak berori onartu zenean bezain garrantzitsuak direla orain. Helburuak lortzeko oztoporik nabarmenenak hauek dira: batetik, langabezia-tasa altua (bereziki, gazteen artean da altua), eta, bestetik, biztanleriaren zahartzea. Lanean aritu beharko luketenen kualifikazio egokirik ez izatea da langabezia-tasa handian eragina duen faktore nagusietako bat, eta, gazteen kasuan, oso lotuta dago eskola uztearekin. Demografiak izan duen bilakaeraren ondorioz, murriztu egin da biztanleria aktiboa. Sekula lan egin ez dutenek edo noizean behin soilik lan egin dutenek betiko lan-merkatutik kanpo geratzeko arrisku handia dute, langabezia-tasa handia dela-eta. Horregatik, Europako herrialdeetako gizarteek (Euskadiko gizarteak barne) erronka handi bat dute; izan ere, 2020rako aurreikuspenen arabera, oso handia izango da goi-mailako lanbide-kualifikazioaren eskaera, eta nabarmen egingo du behera kualifikazio baxuko lanak. Erronka horri aurre egiteko, kontuan izan behar dira Europar Batasunak lortu nahi den eredu ekonomiko berriaren baldintzatzat ezarri dituen helburuak: biztanleriaren enplegu-tasa handitzea, eskola-uzte goiztiarraren tasak gutxitzea (% 10etik behera) eta goi-mailako hezkuntza amaitzen duten 30 urtetik 34ra bitarteko biztanleen ehuneko handitzea (gutxienez, % 40).

Horretaz gain, ondorio koiuntural handia izan du krisi ekonomikoak, eta nahastu egin dira aurreko urteetan egindako aurreikuspen ekonomiko eta sozial guztiak. Nolanahi ere, produkzio-eredua aldatu izana da benetan kezkatu behar gaituen faktorea. Alderdi horretan ari dira gertatzen, hain zuzen ere, gure enpresen etorkizuneko lehiakortasunari eragingo dioten egiturazko aldaketak. Aldaketa horien ondorioz, errotik eraldatzen ari dira gure enpresen lehiatzeko modua eta langileen prestakuntza-premiak, zeintzuk azkar egokitu behar baitira etorkizuneko erronketara, hots, ingurune konplexu eta zalantzarri baten ondoriozko erronketara.

Testuinguru horretan, epe motz zein luzean pertsonen enplegarritasuna hobetzeko, ezinbestekoa izango da estrategia eta mekanismo berriak baliatzea. Alde batetik, kompetentziak eskuratzeko prozesuei eskainitako orduak areagotu behar dira, hori baita eremu gero eta konplexuagoek eskatzen duten espezializazio-maila handia lortzeko modu bakarra. Bestetik, gaur egungo lehiakortasun-egoerara egokitutako prestakuntza eta kompetentziak dituzten langileen eskaerak berarekin dakar orain arteko eskemak haustea; hau da, "lanpostura" bideratutako prestakuntza-eredua atzean utzi eta "arlotan profesionalera" bideratutako eredu berri bat hartzea. Paradigma-aldaketa horrek pertsona du ardatz, eta gaitasun tekniko, pertsonal eta sozialak eskuratzeko eta finkatzeko sustatzen du, gaitasun horiek bermatuko baitituzte beharrezkoak diren balioaniztasuna eta funtzionalitatea.



Beraz, enpresen lehiakortasuna eta pertsonen enplegarritasuna areagotzeko erronka handi bati egin behar diogu aurre. Erronka hori are garrantzitsuagoa da gaur egun, langabezia-tasa handiak baititugu. Horregatik guztiagatik, gero eta garrantzitsuagoa da lotuta egotea hezkuntzako eta Lanbide Heziketako politikak eta enplegu-politikak, bai eta garapen ekonomikoko politikak ere.

Erronka horiei erantzun ahal izateko, EAEk behar duen Lanbide Heziketak malgua izan behar du, eta behar bezalako lotura izan behar du bertako ekonomiaren ezaugarri bereziekin, EAEko lan-merkatuaren egiturara eta berariazko eskakizunetara eta etorkizunean nozituko diren aldaketetara egokitutako tresna izan dadin.

Gaur egun, Lanbide Heziketaren eremuan, hainbat eskumen daude; aipagarriak dira, bereziki, hezkuntzari eta enpleguari dagozkionak. Hezkuntza-sistemaren arloan, Konstituzioaren 149.1.30 artikuluan ezarritakoaren arabera, Estatuaren eskumenen barruan sartzen da Konstituzioaren 27. artikulua (hezkuntza-eskubidea) garatzeko oinarritzko arauak ezartzea, bai eta titulu akademiko eta profesionalak lortzeko, egiteko eta homologatzeko baldintzak arautzea ere. Lan-eremuan, Konstituzioaren 149.1.7 artikuluan ezarritakoaren arabera, Estatuaren eskumenen barruan sartzen da lanaren legedia gauzatzea, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoek legeria hori betearaztea.

Euskal Autonomia Erkidegoak, berriz, eskumen asko dauzka hezkuntzaren eremuan. Autonomia Estatutuaren 16. artikulua arabera, Konstituzioko lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoa aplikatuz, Euskal Autonomia Erkidegoak du eskumena irakaskuntza osoan, hots, maila, gradu, modalitate eta espezialitate guztietan, betiere, hargatik eragotzi gabe Konstituzioaren 27. artikulua eta hura garatzen duten lege organikoak eta Konstituzioaren 149.1.30. artikulua Estatuari esleitutako eskumenak.

Lan-eremuan, Autonomia Estatutuaren 12.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek du eskumena Estatuko legeria betearazteko (batik bat, EAEn garrantzia handia duten gaietan), eta langileen kualifikazioa eta prestakuntza integrala sustatuko ditu.

Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoa oinarritzat hartuta arautu du Estatuak, funtsean, Lanbide Heziketa. Lege horretatik abiatuta, hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketa lege hauen bidez garatu da: batetik, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa, zeina Ekonomia Jasangarriaren martxoaren 4ko 2/2011 Legeak osatu baitzuen eta hura osatzen duen martxoaren 11ko 4/2011 Lege Organikoa aldatu baitzuen (azken horrek 5/2002 eta 2/2006 Lege Organikoak ere aldatu zituen); eta, bestetik, hezkuntza-kalitatea hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoa (LOMCE). Horretaz gain, Enplegurako Lanbide Heziketari buruzko alderdiak urriaren 23ko 3/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez arautu dira (3/2015 LED, Enpleguaren Legearen testu bategina onartzen duena).

Euskal Autonomia Erkidegoak, berari dagozkion eskumenak baliatuz, jarduera nabarmena burutu du Lanbide Heziketaren eremuan, eta sistema zinez garrantzitsua garatu du, hots, Lanbide Heziketaren bi alderdietara bideratutako sistema (Hasierako Lanbide Heziketa eta Enplegurako Lanbide Heziketa). Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, eragile sozialekin eta prestakuntza-zentroekin batera, ahalegin berezia egin du Lanbide Heziketako Sistema garatzeko. Lanbide Heziketako planak onartu eta praktikan jarri izanak eremu horretan egindako ahalegina nabarmentzen du.



Beraz, sistemaren funtsezko elementuetako bat da eragile sozialek Lanbide Heziketako prestakuntza-politikak bultzatzen eta garatzen parte hartzea, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan.

EAEko Lanbide Heziketako ikastetxeek, publikoek nahiz pribatu itunpekoek, urte asko daramatzate Lanbide Heziketa Integratua lantzen, zeina gazteei zuzentzen baitzaie, Hasierako Lanbide Heziketaren bidez, eta gure enpresen giza kapitalari eta langabeei, Enplegurako Lanbide Heziketaren bidez. Lan hori administrazioekiko eta EAEko enpresekiko lankidetzaren bidez egin da, zeintzuek jakin baitute Lanbide Heziketa pertsonen kualifikaziorako funtsezko elementutzat jotzen; lehiakortasunaren, berrikuntzaren eta nazioartekotzearen hobekuntzaren aldeko apustua egin dute, horiek guztiak arrakasta-faktoreak diren aldetik.

Halaber, Administrazioaren eta Lanbide Heziketako ikastetxeen arteko lankidetzaren estuaren bidez, eta enpresa-elkarte eta erakunde sindikalekin batera, hainbat esperientzia egin izan dira enpresako jarduna eta ikastetxeetako prestakuntza txandakatzeko. Esperientzia horien bidez, erantzun egokiagoa eman zaio produkzio-sareari, eta, hartara, pertsonen enplegarritasuna hobetu da.

Esperientzia horiek balorazio ona izan dute, eta, horregatik, bultzatu behar dugu are gehiago gara daitezen gure produkzio-sistemarekiko harremanak. Horretarako, enpresa-ehunaren eta Lanbide Heziketako ikastetxeen arteko lankidetzaren indartu behar da, bi horien artean balioa sortzeko. Horrela, are gehiago sakondu ahal izango dugu gure Lanbide Heziketaren indarguneetako batean: gertutasuna eta lankidetzaren izatea, euskal administrazioaren, Lanbide Heziketako ikastetxeen, enpresen, enpresa-elkarteen, eta, hala badagokio, erakunde sindikalen artean.

Indartu beharreko bideak dira erakundeen arteko lankidetzaren eta lankidetzaren publiko-pribatua. Lankidetzaren formula tradizionala zenbait berreskuratu eta egokitu behar dira, helburuak hobeto bateratzeko eta baliabideak eraginkortasun handiagoz erabiltzeko.

Lehiakortasunari ekarpena egiteko, gai izan behar dugu produkzio-sektoreen eta gure enpresa-ehunaren eskaerei azkar erantzuteko eta euren premiei aurre hartzeko. Egungo egoeran, lehiakortasunerako funtsezko alderdiak dira azkartasuna, malgutasuna, balioaniztasuna eta zeharkakotasuna, bereziki, zientziaren eta teknologiaren aurrerakuntzak espezializazio-maila handiko profesional berriak azkar garatzea eskatzen duten inguruneetan. Kualifikazio handiago horrek ahalbidetu behar du kalitatezko enpleguak sortzea.

Eusko Legebiltzarrak Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legea onartu izana erreferentzia-puntu garrantzitsua da. Lege horrek bizialdi osoko ikaskuntzari buruzko xedapen garrantzitsuak biltzen ditu, eta kontuan hartzen ditu Europako gizarteetan dauden egoera berriak: bizi-itxaropena handia da, eta prestakuntza-beharrak etengabeak dira; horrek goitik behera aldatzen du ikaskuntzaren paradigma tradizionala, zeina bereziki mugatu izan baita bizitzako une jakin batera, hots, gaztarora. Horregatik, enplegura bideratutako prestakuntza etengabea lantzen da, legearen zenbait xedapenetan. Prestakuntza horren bidez, pertsonak etengabe arituko dira ezagutzak eta prestakuntza jasotzen, lanbidearen aldaketetara egokitu ahal izateko, pixkanaka, modu jarraituan. Halaber, Lanbide Heziketaren eremuari dagokionez, berariazko kapitulu bat dago legean (II. kapitulua), "Lanbide Heziketako Euskal Sistema Integratua" ezartzen duena. Horretaz gain, hainbat kapitulutuan, xedapen garrantzitsuak daude Bizialdi Osoko Orientazio Sistema Integratuari eta gizarte-partaidetzari buruz. Dena den, legedi hori aztertzean, kontuan hartu behar dira orain arte adierazi ditugun gainerako alderdiak ere, Lanbide Heziketako IV. Euskal Planean egituratuak.

Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko Legeak esparru bat osatzen du, eremu guztietan garatu beharrekoa; batzuetan, erregelamendu bidez garatuko da, eta, beste batzuetan, daukan garrantzia eta konplexutasuna dela-eta, lege bidez. Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko Legean badira, hala ere, alderdi batzuk berariaz garatu beharrekoak ez direnak. Horietako bat da Bizialdi Osoko Orientazio Sistema Integratua, zeinetan beste elementu bat besterik ez baita Lanbide Heziketako Sistema, bai Hasierako Lanbide Heziketari dagokiona, bai Enplegurako Lanbide Heziketari dagokiona (laneratzea/birlaneratzea eta Etengabeko Lanbide Heziketa, enpresan). Nolanahi ere, oso elementu garrantzitsua da hori Lanbide Heziketako lege honetan ezarritako helburuak lortu ahal izateko.

Lanbide Heziketan berrikuntza eta ekintzailtzaren kultura bultzatzeari dagokionez, Ekonomia Jasangarriari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legearen 72.e) artikuluan honako helburu hau ezarri zen Lanbide Heziketarako: «Lanbide Heziketak berrikuntzaren eta ekintzailtzaren eremuetan betetzen duen egitekoa sustatzea eta bultzatzea». Halaber, 75. artikuluan (enpresekiko lankidetzak) hau ematen da aditzera: «Lanbide Heziketako ikastetxeek eta produkzio-sektore guztietako enpresek proiektu estrategiko komunak sustatu ahal izango dituzte, eta, horretarako, ezagutzan, berrikuntzaren hobekuntzan, ekintzailtzaren sustapenean eta ingurumenarekiko errespetuan oinarritutako eredu ekonomiko jasangarri batera bideratutako ingurune akademiko eta profesionalak garatuko dituzte».

Horretaz gain, 16/2012 Legeak hau agintzen dio hezkuntza-administrazioari (16/2012 Legea, ekainaren 28koa, Euskadiko ekintzaileei eta enpresa txikiari laguntzekoa): batetik, sustatu eta bultzatu dezala Lanbide Heziketak berrikuntzaren eta ekintzailtzaren eremuetan betetzen duen egitekoa, eta, bestetik, sustatu dezala, lan-administrazioarekin batera, produkzio-sektore guztietako enpresekiko lankidetzak, betiere, helburu izanik berrikuntza, ezagutzaren transferentzia eta espezializazioa bultzatzea, Lanbide Heziketaren arloan.

Gerora, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako 7/2008 Legea aldatzen duen ekainaren 11ko 2/2015 Legearen bidez, beste eskumen-banaketa bat ezarri zen, eta nekazaritzaren arloan eskumena zuen sailari esleitu zitzaion lege horretan nekazaritzako eta elikagaigintzako prestakuntza ez-arautu gisa izendatutako horretarako eskumena.

Azkenik, 30/2015 Legeak funtsezko aldaketa dakar Enplegurako Lanbide Heziketaren kudeaketa-esparrura, horren plangintza, finantziarioa, programazioa, egikaritzea eta kontrola dela-eta (30/2015 Legea, irailaren 9koa, Lan-arloan Enplegurako Lanbide Heziketako Sistema arautzekoa). Lege horretan, prestakuntza-mota hori garatzeko irizpideak aldatzen dira, zeintzuei funtsezko aldaketak egiten baitzaizkie.

Arrazoi horiek guztiek beharrezko egiten dute arlo horretan berariazko lege bat lantzea, EAEko indarreko legeria osatuko duena. Lege honen bidez, Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko Legea osatu nahi da, Lanbide Heziketari buruzko beste eremu batzuk garatuta. Helburua da EAEk Lanbide Heziketako sistema bat izatea, egungo eta etorkizuneko erronkei behar bezala aurre egingo diena. Izan ere, sistema horren bidez, zailtasun handiak dituzten inguruneetan pertsonen enplegagarritasuna eta enpresen lehiakortasuna hobetzea ahalbidetuko duen ereduak lortu nahi da. Lege bat behar da, EAERI bitartekoak eskainiko dizkiona, modu sinesgarrian aurre egin diezaien gure produkzio-sareak ekarritako erronkei eta EAERen barruan prestakuntza eta espezializazio handiagoa eskatzen duten enplegu-mota berrietarantzko joerei. Horretarako, Lanbide Heziketako sistemak malgua izan behar du, etengabe aldatzen ari den gizarte eta ekonomia honetara egokitu ahal izateko eta horrelako gizarte eta ekonomia baten barruan nahi diren helburuak lortu ahal izateko.



Lege honek Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako politikak bilduko dituen esparrua arautu nahi du; izan ere, garrantzia handia du horrek sistema ekonomiko berrian, EAE baldintza onetan koka dadin Europak helburu duen eredu ekonomikoan. Eta horretarako, hazkunde zentzuzko, jasangarri eta integratzaile batean oinarritutako ekonomia bultzatuko da, eta, era berean, kalitatezko enplegua sortzea sustatu, gizarte-kohesioa handiagoa lortzeko bidean.

Beraz, edukiaren ikuspegitik soilik, esparru-lege bat da, eta, horregatik, argi zehazten bada zein xedek eta helburuk zuzenduko duten Lanbide Heziketaren eremuko politika eta zein tresna erabiliko diren horren kudeaketan, Eusko Jaurlaritzak une bakoitzean bidezkoak diren neurriak hartu ahal izango ditu, malgutasunez, legean ezarritako esparruaren barruan.

Horretarako, hamar kapitulutan banatu da legea. Lehenik eta behin, xedapen orokorren bidez, legearen helburua eta definizioak ezarri dira, eta Lanbide Heziketa osatzen duten eremuak zehaztu dira; jarraian, Lanbide Heziketaren helburuak ezarri dira, zeintzuk europar erakundeek ezarritako helburuak betetzera zuzenduta baitaude.

Lege honek berritasun bat dakar: Lanbide Heziketako Eredu Konbinatua. Eredu horrek, Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2003 Legean zehaztutako Lanbide Heziketa Integratua ez ezik, berrikuntza aplikatuko ikaskuntzak eta ekintzailtza aktiboa ere barne hartzen ditu. Bi eremu horiek kualitatiboki eraldatu behar dituzte Lanbide Heziketak arlo ekonomikoan eta, batik bat, arlo produktiboan izango dituen ondorioak, betiere, helburu izanik pertsona aktiboak prestatzea, zeintzuen trebetasunen eta, bereziki, lanbide-helburuen zati izango baitira, batetik, berrikuntza (euren lanbide-eremukoa), eta, bestetik, ekimen-sena eta espiritu ekintzailea (dagokien sektore ekonomikoan).

Lanbide Heziketako IV. Euskal Planaren beste helburu bat da Eredu Konbinatuan Espezializatutako Lanbide Heziketako Ikastetxeen Euskal Sarea arautzea. Sare horren bidez, gainditu egin nahi da ikastetxeen arteko bereizketa hau: batetik, ikastetxe integratuak, Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Legeko prestakuntza-jarduerak eskusiboki eskaintzen dituzten ikastetxeak; eta, bestetik, beste hezkuntza-eskaintza batzuekin batera Lanbide Heziketako irakaskuntzak eskaintzen dituzten ikastetxeak.

Ikas-ekinezko Erregimeneko Lanbide Heziketa Duala garatzea helburu estrategikoa da, garapen-maila handiagoa duten Europako beste herrialde batzuetan ezarritako Lanbide Heziketako eredu bultzatzeko ezinbestekoa den aldetik. Lege honen bidez, Ikas-ekinezko Erregimeneko Lanbide Heziketa Dualaren sistema sendo eta zabala garatzeko eta ezartzeko elementuak ezarri nahi dira. Sistema horretan sartuko dira bai Hasierako Lanbide Heziketa eta Enplegurako Lanbide Heziketa, bai beharrezkoak diren espezializazioak, oro har, produkzio-sareak, eta, bereziki, ezagutzaren sektore nagusiek eskatutakoak.

Beharrezkoa da hezkuntzaren eta lanaren arteko banaketa tradizional hori atzean uztea Lanbide Heziketan, helburu komunak lortzeko lagungarria izango den sistema koherente bat sortu nahi badugu. Horretarako, lehenik eta behin, Euskal Autonomia Erkidegoak arlo batean zein bestean dituen eskumenak koordinatu behar dira. Eta horretarako, sail arteko organo bat eratuko da, hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren arloko eta Enplegurako Lanbide Heziketaren arloko eskumenen koordinazioa bermatzeko. Gai horretan eskumenak dituzten sailletako ordezkariak hartuko dute parte organoan.



Era berean, Lanbide Heziketako IV. Euskal Planean proposatzen den Lanbide Heziketaren eraldaketak lankidetzaz-esparru berri bat eskatzen du bertan parte hartzen duten eragileen artean. Horregatik, Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua eraldatu egin beharko da: Lanbide Heziketa osatzen duten politikak eztabaidatzeko, adosteko eta hitzartzeko erakunde berri batean bilakatu behar da.

Legeak, halaber, Lanbide Kualifikazio eta Espezializazioen Euskal Esparrua arautzen du, gure lan-merkatuari erantzun ahal izateko, Lanbide Heziketako Sistema Orokorren bidez. Esparru horretan sartuko dira EAEko lanbide-espezializazioko programen ziurtagiriak eta egiaztagirak. Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko Legean ezarrita dago jada hainbat bide erabiliz ikaskuntza-jarduerak egiaztatze sistemak. Lege honen bidez, orduan arautu zena osatu nahi da, eta berariaz aipatzen da bereziki sustatu nahi den jarduerak: lanbidearen eremuko espezializazio-programak. Jarduera horiek ezinbestekoa dute aitorpena eta egiaztapena, indarrean dagoen araudiaren esparruan duten balioa aitortzeko.

Lanbide Heziketako Euskal Sistema nazioartekotzea da lege honek garrantzia handiagoa eman nahi dion beste ardatz bat. Nazioartekotze-prozesua hiru esku-hartze motaren gainean eraikita dago. Lehenik, irakasle eta ikasleen truke-programak gauzatzen dira, bi norabideetan: irakasle eta ikasleek beste herrialde batzuetako herrialdeetan parte hartzen dute; eta EAEko ikastetxeek beste herrialde batzuetakoak hartzen dituzte. Bigarrenik, Lanbide Heziketako Euskal Sistemaren prestakuntza-jarduerak eskaintzen dira beste herrialde batzuetan, eta hori oso garrantzitsua da EAEtik kanpora lantokiak dituzten euskal enpresentzat. Eta, hirugarrenik, Lanbide Heziketako Euskal Sistemak esperientziak esportatu behar ditu beste herrialde batzuetara, bere Lanbide Heziketako sistemak beste herrialde batzuetan diseinatu eta ezarri, EAEko ezagutzak eta esperientziak zabaltzeko.

EAEko Lanbide Heziketan, hizkuntzen auziak erronka bikoitz bat dakar. Batetik, EAEko hizkuntza ofizialek Lanbide Heziketan izango duten presentzia Lanbide Heziketako Sistemara egokitu beharra dago, eta konpondu egin behar dira urte hauetan guztietan nabarmendu diren arazoak. Euskarak Lanbide Heziketako Sistemaren duen presentzia normalizatua dela bermatu behar da; hartara, hizkuntzaren arloko xedapen orokorrak aplikatuko dira, eta bermatu egingo da bi hizkuntza ofizialak behar bezala menderatzen dituztela prestakuntza-jarduerak egiten dituztenek (bereziki, Hasierako Lanbide Heziketan). Era berean, hizkuntza-eredu bat edo bestea ezarriko da Lanbide Heziketaren eta enpresa-munduen berezitasunak eta eskakizunak kontuan hartuta. Ildo horretatik, lege honek euskara eta gaztelaniaren eredu elebidunaren alde egiten du.

Bigarrenik, Lanbide Heziketak aurre egin behar dio atzerriko hizkuntzen ezagutza lan-mundura zabaltzeko erronkari. Ildo horretatik, ezinbestekoa da ingelesaren ezagutza oro har zabaltzea; baina zenbait eremutan edo zenbait kasutan, ezinbestekoa da beste hizkuntza batzuk ere ikastea (bereziki, Etengabeko Lanbide Heziketaren eremuan).

Lanbide Heziketako Sistema modu eraginkorrean garatzea bermatu behar da, etengabeko hobekuntzarako prozesu baten bitartez; bada, horretarako garrantzitsuak diren bi gai dakartza, azkenik, legeak. Batetik, legeak ezartzen du beharrezkoa dela bultzatzea, bai Lanbide Heziketari buruzko ikerketa, bai prestakuntza-eskaintzak eta Lanbide Heziketako Sistema berritzeko eta hobetzeko prozesuak. Bestetik, Lanbide Heziketako Sistema aldizka ebaluatzeko betebeharra ezartzen du legeak, eta berariaz aipatzen ditu Lanbide Heziketako Eredu Konbinatua osatzen duten jarduerak, baita Ikas-ekinezko Erregimeneko Lanbide Heziketa Dualaren programak ere.



Azkenik, Lanbide Heziketaren eremuan aholkularitzako erakunde tekniko zenbait sortzea, aldatzea edo kentzea aurreikusten du legeak, baita lanpostu horiek langilez hornitzeko berariazko prozedurak ere. Halaber, beste lege-arau batzuetako artikulua batzuk indargabetzen dira, lege honetan xedatutakoaren aurkakoak direlako.

Legeak aurreikusten du, halaber, irakaskuntzako lanpostuak betetzeko berariazko sistema bat ezartzeko aukera, Eredu Konbinatuan Espezializatutako Lanbide Heziketako Ikastetxeen Euskal Sarea osatzen duten ikastetxeentzat.

ATARIKO KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Xedea eta helburua.

1. Lege honen bidez, Lanbide Heziketako Euskal Sistema antolatu eta arautu nahi da, behar bezalako erantzuna eman behar baitzaie bai euskal gizartearen eta ekonomiaren beharrei, bai gizarte horren barruan sortzen diren eraldaketei, halakoak sortzen baitira hazkunde zentzuzko, jasangarri eta integratzaile baterako ezagutzan oinarritutako ekonomia bat garatzerakoan.

2. EAEko Lanbide Heziketa antolatzeko oinarri izango dira: Estatuko legeria aplikagarria; Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legea; Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikei buruzko abenduaren 23ko 17/2008 Legea; Lanbide Heziketako lege hau, eta horiek guztiak garatzeko diren gainerako arauak.

3. Lege honek osatu egiten du Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legean zehaztutako Lanbide Heziketako Sistema Integratua, Lanbide Heziketaren eremuari dagokionez, eta berrikuntza aplikatuaren eta ekintzailtza aktiboaren ikaskuntza-jarduerak ere barne hartzen ditu, 16/2012 Legeko aginduei jarraikiz (16/2012 Legea, ekainaren 28koa, Euskadiko ekintzaileei eta enpresa txikiari laguntzekoa).

4. Eusko Jaurlaritzak botere publikoen, eragile sozialen eta enpresen arteko lankidetzarako mekanismoak ezarriko ditu, horiek guztiek aktiboki parte har dezaten EAEko Lanbide Heziketa garatzen eta hobetzen.

2. artikulua.- Kontzeptuak eta definizioak.

1. Lanbide Heziketako Euskal Sistemaren barruan, lege honetan zehazten diren honako elementu hauek sartzen dira: Lanbide Heziketako Eredu Konbinatua; Lanbide Kualifikazio eta Espezializazioen Euskal Esparrua; orientazio profesionala eta lana aitortzeko sistema, eta beste ikaskuntza ez-formal edo informal batzuk, Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legean adierazten direnak. Sistema horren barruan sartuko dira, halaber, ikerketa, berrikuntza eta etengabeko hobekuntza.

2. Lanbide Heziketa prestakuntza- eta ikaskuntza-jardueren multzo bat da, gaitasuna ematen duena honako hauetarako: lanbide bateko eta besteko jardun kualifikaturako, enplegurako sarbidea izateko eta parte-hartze aktiboa izateko, bizitza sozial, kultural zein ekonomikoan. Landunei zein langabeei lanbide batean jarduten eta enplegua lortzen irakasten



dieten prestakuntza- eta ikaskuntza-jarduerak barne hartzen ditu Lanbide Heziketak, baita horiek eguneratzerara eta hobetzerara zuzendutakoak ere.

3. Lanbide Heziketako Eredu Konbinatuaren barruan sartzen dira, batetik, Lanbide Heziketako Sistema Integratuan sartutako prestakuntza- eta ikaskuntza-jarduerak (Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legean zehaztu zen sistema hori), eta, bestetik, berrikuntza aplikatuaren ikaskuntzako eta ekintzailtza aktiboaren ikaskuntzako jarduerak, zeintzuek osatu egiten baitute eredu berri hori. Jarduera horien bidez, beharrezkoak diren lanbide-gaitasunak emango zaizkie Lanbide Heziketako Sistemaren onuradunei, hiru eremuetan.

3. artikulua.- Helburuak.

1. Lege honek bere egiten ditu Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legean ezarritako xedekak, eta Lanbide Heziketako Euskal Sistema eratzea du helburu. Sistema horren bidez, hau guztia lortu nahi da:

a) Lanbide Heziketaren kalitatea areagotzea, daukan balioa gizartean eta produkzio-sarean nabarmentzea, eta pertsonen eta enpresen interesak bateratzea.

b) Enpresak eta produkzio-sektoreak unean-unean behar diren lanbide-profilez hornitzea, horixe baita pertsonen enplegurako eta enpresen lehiakortasunerako bermerik onena.

c) Lan-jardunera bideratutako prestakuntza-eskaintza bat osatzea, pertsona guztientzat irekia, zeinahi delarik ere haien generoa eta egoera –pertsonala zein lanekoa– .

d) Pertsonen lanbide-gaitasunak bizitzan zehar hobetu daitezzen sustatzea, pertsona horiek gai izan daitezzen ekonomia-sarearen lehiakortasunaren ondoriozko beharrei erantzuteko. Hartara, areagotu egingo dira enplegu egonkor eta kalitatezkoetarako aukerak, enplegurako sarbidea izatea eta lanak jarraipena izatea ahalbidetuko da, eta, ondorioz, gizarte- eta lurralde-kohesioko aukerak bultzatuko dira, herrialde baten proiektu gisa.

e) Emaitzen araberako ikaskuntzaren ikuspegian oinarritutako sistema malguak eratzea. Horretarako, ikaskuntza-ibilbide batzuk erabiliko dira, dauden prestakuntza-eskaintzen eta hezkuntza- eta lan-sistemaren mailen arteko transferentzia ahalbidetuko dutenak.

f) Ikaskuntza ez-formal edo informalen bidez eta lanpostuko esperientziaren bidez eskuratutako gaitasunak egiazta daitezzen bultzatzea.

2. Halaber, honako hauek izango dira Lanbide Heziketako Euskal Sistemaren lehentasunezko helburuak:

a) Bermatzea herritarrek erabaki egokiak har ditzaten euren prestakuntza- eta lanbide-ibilbidea hautatzerakoan eta kudeatzerakoan. Horretarako, aurre egin behar zaie ikasketetan jarraitzea eragozten duten estereotipoei (generoari edo orientazio afektibo-sexualari dagozkion estereotipoak), eta generoaren ohiko profilak gainditu behar dira.

b) Prestakuntza-ekintzetan parte hartuko duten helduen kopurua handitzea.

c) Berrikuntza, sorkuntza, ekintzailtzarako gaitasuna eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKTen) erabilera sustatzea, bai Hasierako Lanbide Heziketan, bai Enplegurako Lanbide Heziketan.



- d) Lanbide Heziketako Euskal Sistemaren nazioartekotzea bultzatzea.
- e) Nabarmen handitzea Lanbide Heziketako ikasle eta irakasleek nazioaz gaindi mugitzeko dauzkaten aukerak.
- f) Lanbide Heziketako Euskal Sistemaren eta Euskal Unibertsitate Sistemaren arteko lankidetzaren bultzatzea.
- g) Gizartearen edo sektoreen beharizan berrietara egokitutako irakaskuntza ahalbidetuko duten gaitasunak –oinarrizkoak zein espezifikoak– eta lanerako beste edozein tresna ematea irakasleei.
- h) Gizartearen eta lan-munduan sartzeko zailtasunak dituzten kolektiboek eta pertsonen prestakuntza jasotzeko dauden oztopoak desagerraraztea, eta prestakuntzaren eta lan-merkatuaren arteko zubia erraztea.
- i) Laguntza ematea ikasketen uzte goiztiarraren eta eskola-porrotaren aurkako politikari, enplegurako baliozkoak diren kualifikazioak emanez eta hezkuntza-sistemarako pertsonak berreskuratzen saiatuz.

3. EAEko hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren arloan eskumena duen sailak Lanbide Heziketako ikastetxeen eta enpresa zein enpresa-erakundearen arteko partaidetza- eta lankidetzaren moduak sustatuko ditu, eta Ikas-ekinezko Lanbide Heziketa Duala bultzatuko du, modalitate guztietan. Ildo horretatik, Lanbide Heziketako ikastetxeen eta eragile sozialen arteko lankidetzaren bultzatuko da, mota horretako heziketa sustatzeko, bai ikastetxeetan, bai enpresetan.

4. EAEko hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren arloan eskumena duen sailak eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak Hasierako Lanbide Heziketa eta Enplegurako Lanbide Heziketa gara daitezkeen sustatuko dute, Lanbide Heziketari buruzko azterketa, proiektu pilotu edo ikerketen bidez, eta, horretarako, eragile sozialekin lankidetzan ariko dira.

4. artikulua.- Lankidetzaren, enpresekin, eragile sozialekin eta beste erakunde eta entitate batzuekin.

1. Lanbide Heziketako Euskal Sistema garatzeko, beharrezkoa da administrazio publikoek lankidetzaren eta partaidetzaren izatea eragile sozialekin (batez ere, ordezkariaren handiena duten erakundeekin) eta enpresa, profesional, unibertsitate eta Lanbide Heziketako ikastetxeekin, batez ere, gorabidean diren eta hazten eta berritzen ari diren sektoreetan. Bada, horixe sustatuko dute EAEko hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren arloan eskumena duen sailak eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak. Enpresek banan-banan edo taldean parte har dezakete, ordezkariaren dituzten erakundeekin bidez.

2. Lankidetzaren helburuak, -tresnak eta -ekimenak Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legearen 27. artikuluan ezarritakoaren arabera izango dira.

LEHEN KAPITULUA LANBIDE HEZIKETAKO EREDU KONBINATUA

5. artikulua.- Lanbide Heziketako Eredu Konbinatuaren egitura.

Hauek osatzen dute EAEko Lanbide Heziketako Eredu Konbinatua:



a) Prestakuntza-jarduera formalak, urriaren 10eko 1/2013 Legean zehaztutako Lanbide Heziketako Sistema Integratuan sartzen direnak. Honako hauek sartzen dira bertan:

a.1) Hasierako Lanbide Heziketa edo hezkuntza- sistemako Lanbide Heziketa: hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketako maila guztietako irakaskuntza ofizialek osatzen dute. Irakaskuntza horiek Lanbide Heziketako titulu eta egiaztagiri ofizialak lortzeko dira, zeintzuk Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalari lotuta baitaude, oro har.

a.2) Enplegurako Lanbide Heziketa: profesionaltasun-ziurtagiriak lortzea du helburu, eta biztanleria aktiboaren lanbide-kualifikazioa hobetzera bideratuta dago. Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionala du, nagusiki, erreferente.

b) Prestakuntza-jarduera ez-formalak, zeinak, aurrekoekin batera, Lanbide Kualifikazio eta Espezializazioen Euskal Esparruan sartuko baitira. Indarreko araudian zehazten denaren arabera egiaztatuko dira, eta araudi horri jarraikiz dagozkien balio eta ondorioak izango dituzte.

c) Lanbide Heziketarako sarbidea prestatzeko neurriak, halakorik behar denerako.

d) Berrikuntza aplikatuaren eta ekintzailtza aktiboaren eremuko ikaskuntzak.

6. artikulua.- Lanbide Heziketa Integratuaren eremua.

1. Lanbide Heziketa Integratuaren eremuan, Lanbide Heziketako Sistema Integratuari dagozkion prestakuntza- eta ikaskuntza-jarduerak sartzen dira (Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legean zehaztu zen Lanbide Heziketako Sistema Integratua), zeinak 5. artikuluan a) letran zehaztuta baitaude. Eremu horretan sartzen dira, halaber, ikaskuntza ez-formalak, baldin eta aitortpena eta egiaztapena jasotzea merezi badute, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren iritziz. Ikaskuntza horiek 5. artikuluan b) letran daude zehaztuta.

2. Hasierako Lanbide Heziketa.

a) Lege honen 5. artikuluan zehaztutako Hasierako Lanbide Heziketako irakaskuntzen curriculum orokorra ezartzeko, kontuan hartuko dira, besteak beste, EAEko produkzio-sektoreen eskariak eta enplegarritasun-beharrak.

b) Pertsonen prestakuntza produkzio-sektore horien espezializazio-beharren arabera izateko eta bizialdi osoko ikaskuntza laguntzeko eta hobetzeko, testuinguru zehatzetara egokitu ahal izango da curriculum orokor hori, eta, horrela, enpresen lehiakortasuna hobetzeko eta enplegua sustatzeko lehentasunezkoak diren sektore adierazgarrien beharrei erantzun ahal izango zaie.

c) EAEko hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren arloan eskumena duen sailak prestakuntza-ibilbide integratuak zehaztu ahal izango ditu Hasierako Lanbide Heziketaren kualifikazio-maila guztietan, lanbidean aurrera egiteko aukera egon dadin, eta, era berean, bitartekoak indartuta, beste gaitasun orokor batzuk eskuratu daitezzen, hots, ikaskuntza iraunkorra eta aurrerabide profesionala zein pertsonala berme osoz ematen duten beste gaitasun orokor batzuk eskura daitezzen. Horrela, enplegurako gaitasuna eta lan-merkatuaren egoera aldakorretara egokitzeko malgutasuna hobetuko da, betiere, oinarrizko araudia errespetatuta.

3. Enplegurako Lanbide Heziketa.

a) Lanbide-gaitasunak eguneratu nahi dituzten langile landunen eta ez-landunen kualifikazio-beharrizanei erantzuten die Enplegurako Lanbide Heziketak. Horretarako, produkzio-sistemari egokitutako prestakuntza eskaintzen zaie, berehala laneratu daitezten.

b) Enplegurako Lanbide Heziketa bi jarduketa-motatan oinarrituko da:

b.1) Profesionaltasun-ziurtagiriak: hezkuntza- sistemako Lanbide Heziketaren tituluekin batera, ofizialki egiaztatzen dituzte eskuratzen diren lanbide-gaitasunak. Egiaztatzen diren gaitasunak Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalan ageri dira.

b.2) Profesionaltasun-ziurtagiriekin loturarik ez duen prestakuntza, zeina honako hauek osatzen baitute:

- Lanbide Kualifikazio eta Espezializazioen Euskal Esparrua erreferentziatzen duten prestakuntza- espezialitateak, indarreko araudian ezartzen denaren arabera aintzatesten, egiaztatzen eta ziurtatzen direnak.

- Funtsezko gaitasunak eskuratzeko beste prestakuntza batzuk, enplegurako jarrerak eta balioak, edo beste edozein prestakuntza espezifikoa, enpresetan unean-unean dauden beharrizanei egokitutakoa eta landunen prestakuntzari zuzendutakoa, eta, gizarteratzeko eta lan-munduan sartzeko zailtasun bereziak dituzten lanbide-profil zehatz batzuei dagokienez, kontratazioarako konpromisoak edo curriculum egokitzapenak.

c) Enplegurako Lanbide Heziketaren eskaintzak Lan Administrazioaren Prestakuntza Espezialitateen Euskal Katalogoan egon behar du, eta barne hartu behar du, bai profesionaltasun- ziurtagiriaren bidez egiaztatzen den prestakuntza (prestakuntzako modulu eta unitateak barne), bai profesionaltasun-ziurtagiriekin loturarik ez duen prestakuntza (b.2 atala).

d) Horretarako, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak Enplegurako Lanbide Heziketari lotutako Prestakuntza Espezialitateen Euskal Katalogo bat izango du.

4. Lanbide-espezializazioko programak.

Pertsonen enplegarritasuna eta enpresen lehiakortasuna hobetzera bideratuta daude programa horiek. Ez dute titulu edo ziurtagiri akademikorik, lanbide-ziurtagirik edo ziurtagiri partzial metagarriarik emango, harik eta gaitasunak Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalan sartzen diren arte. Hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren arloan eskumena duen sailak ziurtatuko ditu programa horiek.

7. artikulua.- Berrikuntza aplikatuko ikaskuntzaren eremua.

1. Berrikuntza aplikatuko ikaskuntzako jarduerak dira Lanbide Heziketaren arloan ekimena eta ekintza berritzaileak sustatzera bideratzen direnak. Ekintza horien helburua izango da prestakuntza horretan parte hartzen duten ikastetxeek eta pertsonak gorabidean diren arloei eta teknologia eta prozesu aurreratuei buruzko ezagutza bereganatzea eta ezagutza hori areagotzea.

2. Ekintza horien bidez bultzatu nahi da, halaber, Lanbide Heziketatik enpresen balio-katera ekarpen zehatzak egitea, enpresa horien produkzio-prozesuak eta fabrikatzen dituzten produktuak optimizatzeko eta hobetzeko. Horretarako, hainbat proiektutan lankidetzan ariko dira



Lanbide Heziketako ikastetxeak eta enpresak –batez ere, ETEak, enpresa txiki eta ertainak–. Era berean, ekintza horien bidez, ikastetxeak ezagutzaz jabetzea ere bultzatuko da.

3. Berrikuntza aplikaturako ikaskuntzak ingurune estrategiko espezializatuak sor daitezen bultzatuko du, ingurune horiek lagundu egingo baitute Lanbide Heziketako ikastetxeek eta enpresek bat egitea eta lankidetzan jardutea, hainbat produkzio-sektoretan (batez ere, ETEen eremuan, hots, enpresa txiki eta ertainen eremuan).

4. Ikaskuntza horrek gorabidean diren sektoreen espezializazio-arloak ere sustatuko ditu, baldin eta interesekoak badira euskal produkzio-sarearentzat; berrikuntza aplikatuko proiektuen bidez egingo da hori.

5. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, berrikuntza aplikatuko ikaskuntza sustatzeko, Lanbide Heziketako ikastetxeen eta enpresen arteko lankidetzarako guneak ezarriko ditu, ingurune estrategiko espezializatueta eta espezializazio-arloetan sartutako produkzio-sektoretan. Hartara, enpleguaren eta lehiakortasunaren erronka berriei erantzun ahal izango zaie.

6. Hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren arloan eskumena duen sailak berrikuntza aplikaturako ikaskuntzaren eremua bultzatuko du, bai Lanbide Heziketa ikasten diharduten gazteen artean, bai biztanle aktibo landunen artean, eta, horrela, berrikuntzaren kultura sustatuko du pertsona horiengan.

8. artikulua.- Ekintzailtza aktiboaren ikaskuntza-eremua.

1. Ekintzailtza aktiboaren ikaskuntza-jarduerak Hasierako Lanbide Heziketan edo Enplegurako Lanbide Heziketan dihardutenentzako dira. Jarduera horien bidez, hau sustatu nahi da pertsona horiengan: ekimen-sena eta euren lanbideari lotutako enpresa-proiektuei ekiteko gaitasuna. Lehentasunezkoa izango da hori industria-inguruneetan eta estrategikotzat jotzen diren gainerako sektoretan, enpresak sortzea lagundu nahi denez gero. Jarduera horiek 17. artikuluan ezarritako Lanbide Heziketako Koordinazio Organo Gorenaren jarraibideen arabera zehaztuko eta garatuko dira.

2. Ekintzailtza aktiboaren ikaskuntza-proiektuetan, ikasleek sormenezko zein kontzeptuzko gaitasun eta trebetasun berriak gara ditzaten bultzatuko da, zeintzuk ekintzailtzaren kultura sustatzera zuzenduta egongo baitira, eta jarduera erreal baten arabera finkatutako esperientzia praktikoetan oinarrituta antolatuko baitira.

3. Horretarako, EAEko hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren arloan eskumena duen sailak programa multidimentsionalak diseinatzea eta abiaraztea sustatuko du, programa horietan uztartu egingo baitira proiektuak garatzeko ikaskuntza eta produkzio-sektoreetako eragile ekonomikoen esperientzia. Eta, hartara, ikaskuntza-gaitasunak garatzeko eremu esperimentalak sortuko dira.

4. EAEko Hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren arloan eskumena duen sailak honako hau ere sustatuko du: Lanbide Heziketako ikastetxeek enpresen sorkuntza bultzatzea hainbat sektoretan. Enpresa horien ezaugarriak izango dira: berrikuntza, nazioartekotze-ikuspegia eta pertsonetan oinarritutako antolakuntza-moduak. Hartara, posible izango da euskal produkzio-sarea leheneratzea eta handitzea.



5. Arreta berezia eskainiko zaio irakasleek eremu horretan dituzten gaitasunak eta kompetentziak hobetzeari, eta, horretarako, irakasleengan ekintzaitzaren kulturaren oinarriak sustatuko dituzten ekintzak egingo dira.

9. artikulua. Berrikuntzaren eta ekintzaitzaren ikaskuntza sustatzea.

1. EAEko hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren arloan eskumena duen sailak, lehentasunez, Lanbide Heziketako Eredu Konbinatua osatzen duten eremuak modu orekatuan garatzera bideratutako prestakuntza- eta ikaskuntza-jarduerak bultzatuko ditu, eta beti izango du kontuan jarduera-mota bakoitzari berariaz eman ahal izango zaion pisua (prestakuntza, berrikuntza, ekintzaitza).

2. EAEko hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren arloan eskumena duen sailak berariaz bultzatuko du hau: berrikuntzaren eta ekintzaitzaren eremuan ikaskuntza- eta sustatze-ekintzak sartzea, arlo horiek garatzeko beharrezkoa den prestakuntza ematea, bai eta bi eremu horiei lotutako proiektuak martxan jartzea ere.

3. Eusko Jaurlaritzak bultzada berezia emango die berrikuntzaren eta ekintzaitzaren eremuko ikaskuntza-ekintzei, horretarako zehaztuko dituen ekintza-programen bidez, harik eta normaltasunez txertatzen diren arte Lanbide Heziketako Sistemako eragileen prestakuntza-eskaintzan. Horretarako, honako hau sustatu behar da, enprekin lankidetzan (batez ere, ETEekin, enpresa txiki eta ertainekin): Lanbide Heziketako ikastetxeek Lanbide Heziketa Integratuko eta ikaskuntzako ekintzen eskaintza izan dezatela, berrikuntza aplikatuaren eta ekintzaitza aktiboaren eremuan.

4. Hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren arloan eskumena duen sailak hau sustatuko du: berrikuntza aplikatuaren eta ekintzaitza aktiboaren ikaskuntzako jarduerak sar daitezela Eredu Konbinatuan Espezializatutako Lanbide Heziketako Ikastetxeen Euskal Sarea osatzen duten ikastetxe guztietan.

5. Berrikuntza aplikatuaren eta ekintzaitza aktiboaren ikaskuntzako jarduerak Lanbide Heziketako Koordinazio Organo Gorenak erabakiko ditu (lege honen 17. artikulua).

10. artikulua.- Lankidetzaren publiko-pribatua.

Lanbide Heziketako Eredu Konbinatua garatzeko, administrazio publikoek honako hauekin guztiekin ezinbesteko lankidetzaren eta partaidetzaren izatea sustatuko da: ordezkariarik handieneko eragile sozialekin, lege honen bigarren kapituluaren ezartzen den ikastetxe espezializatuen sarekoak diren Lanbide Heziketako ikastetxeekin eta enpresa eta unibertsitateekin. Berezi, gorabidean diren eta hazten eta berritzen ari diren sektoreetan sustatuko da hori.

Enpresek banan-banan edo taldean parte har dezakete, ordezkariarik handiena duten erakunde bidez.



BIGARREN KAPITULUA
EREDU KONBINATUAN ESPEZIALIZATUTAKO LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXEEN
EUSKAL SAREA

11. artikulua.- Eredu Konbinatuan Espezializatutako Lanbide Heziketako Ikastetxeen Euskal Sarea.

1. Erregelamenduz ezarriko dira Eredu Konbinatuan Espezializatutako Lanbide Heziketako Ikastetxeen Euskal Sarean parte hartzeko baldintzak, bai eta horren osaera ere. Baldintza horiek honako irizpide hauetan oinarrituko dira: kalitatea, prestakuntza-gaitasuna eta osagarritasuna, berrikuntza- eta ekintzailtza-proiektuetako partaidetza, Ikas-ekinezko Erregimeneko Lanbide Heziketa Dualaren proiektuetako partaidetza, kokapen geografikoa eta espezializazio sektoriala.

2. Lege honen ondorioetarako, Eredu konbinatuan Espezializatutako Lanbide Heziketako Ikastetxeen Euskal Sarea ikastetxe hauek osatu ahal izango dute: hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketa eta Enplegurako Lanbide Heziketa eskaintzen dutenek (izan eskusiboki, izan beste hezkuntza-eskaintza batzuekin batera), berrikuntza aplikatuko proiektuak bultzatzen dituztenek eta ekintzailtza kultura eta enpresa-sorkuntza sustatzen dutenek, lege honetan xedatutako Lanbide Heziketako Eredu Konbinatuan ezarritako moduan. Sare hori Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legearen 32. artikuluan zehaztutako Lanbide Heziketako ikastetxeen sarean sartzen da.

3. Halaber, sektoreko interesak direla-eta, eta lege honetako gainerako baldintzak betez, ikastetxe hauek parte hartu ahal izango dute sare horretan: administrazio eskumendunaren baimen edo akreditazioa izanik, lege honen 5. artikuluko 1. zenbakian adierazitako prestakuntza-jardueren modalitatearen bat edo 21. artikuluko 2. zenbakian ezarritako programaren bat ematen dutenek.

12. artikulua.- Eredu Konbinatuan Espezializatutako Lanbide Heziketako Ikastetxeen Euskal Sarearen antolamendua.

1. EAEko hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren arloan eskumena duen sailak, indarreko araudi-esparruaren barruan, honako hau bultzatuko du Eredu Konbinatuan Espezializatutako Lanbide Heziketako Ikastetxeen Euskal Sareko ikastetxeetan: kudeaketa aurreratuari, lege honetan ezarritako Lanbide Heziketako Eredu Konbinatuko hiru eremuetarako prestakuntza- eta ikaskuntza-gaitasunari, berrikuntza aplikatuko esparruari, ekintzailtza aktiboari eta nazioartekotzeari dagozkion irizpide batzuk garatzea, horiek guztiak ikastetxe bakoitzari dagozkion lurralde-eremuan sartzea eta ingurune horretako produkzio-sektoreei lotzea, bai eta prestakuntza- eta ikaskuntza-eskaintza espezializatzea ere.

2. Eredu Konbinatuan Espezializatutako Lanbide Heziketako Ikastetxeen Euskal Sareko ikastetxeek Lanbide Heziketako Eredu Konbinatuaren esparruan garatzen diren hainbat programetan parte hartu ahal izango dute, baldin eta euren espezializazio-eremuari eragiten dioten programak badira.

3. Eredu Konbinatuan Espezializatutako Lanbide Heziketako Ikastetxeen Euskal Sareko ikastetxeek lankidetzan jardungo dute Lanbide Heziketako aholkularitzako erakunde teknikoekin, horiei esleitutako egitekoak garatzeko.



4. Eredu Konbinatuan Espezializatutako Lanbide Heziketako Ikastetxeen Euskal Sareko ikastetxeek lankidetzan jardungo dute sareko gainerako ikastetxeekin eta enpresekin Lanbide Heziketako Eredu Konbinatuko jardueren eremuan, eta haiekin kooperatuko dute ekoizpen-prozesuak eta produktuak berritzeko eta hobetzeko proiektuetan, kultura ekintzailea sustatzeko proiektuetan, enpresa-sorkuntza bultzatzekoetan eta antzeko beste batzuetan. Lege honen lehenengo kapituluan Lanbide Heziketako Eredu Konbinatuaren eremuetarako aipatutako jardueren esparruan enpresekin egingo den lankidetzaren ondorioetarako, Eredu Konbinatuan Espezializatutako Lanbide Heziketako ikastetxe publikoetako zuzendariek, euren autonomiaren barruan, akordioak eta hitzarmenak sinatu ahal izango dituzte ikerketa eta berrikuntza teknologikoko enpresa, instituzio eta erakundeekin, lege honetan aurreikusitako helburuak lortzen lagunduko duten ekintzak gauzatzeko. Kasu horretan, akordio edo hitzarmen bat egin ahal izateko, kontuan izango dira eskumenen arloko arauak eta aplika daitezkeen prozedurak.

5. Eredu Konbinatuan Espezializatutako Lanbide Heziketako Ikastetxeen Euskal Sareko ikastetxeek gainerako ikastetxeekin lankidetzan jardungo dute, euren funtzionamendua bultzatzeko eta hobetzeko.

6. Halaber, sarea osatzen duten ikastetxe horiek dagokion araudian zehaztutako beste funtzio batzuk ere garatu ahal izango dituzte.

13. artikulua.- Eredu Konbinatuan Espezializatutako Lanbide Heziketako Ikastetxeen Euskal Sarean espezializatutako sareko nodoak.

1. Eredu konbinatuan Espezializatutako Lanbide Heziketako Ikastetxeen Euskal Sarearen barruan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak sareko nodo espezializatuak eratu ahal izango ditu. Nodo horiek ikastetxeek osatuko dituzte, zeintzuk, espezializazio- eta osagarritasun-irizpideei jarraikiz, euren borondatez elkartuko baitira, euren arteko eta/edo enpresekiko lankidetzazko proiektuak oinarri hartuta.

2. Sareko nodo espezializatu horien konfigurazioa aldakorra izango da, eta enpresei edo sareko ikastetxeei eurei teknologia- eta berrikuntza-transferentziako zerbitzuak emateko eratu ahal izango dira.

14. artikulua.- Eredu Konbinatuan Espezializatutako Lanbide Heziketako Ikastetxeen Euskal Sarean prestakuntza- eta ikaskuntza-jarduerak garatzeko programak.

1. EAEko hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren arloan eskumena duen sailak, Eredu Konbinatuan Espezializatutako Lanbide Heziketako Ikastetxeen Euskal Sarearen barruan, eredu horri lotutako prestakuntza- eta ikaskuntza-jarduerak sustatzeko eta garatzeko berariazko programak bultzatuko ditu, lege honetan ezarritako baldintza eta helburuen arabera.

2. Berariazko programa horiek, zeinak sare hori osatzen dutenentzat izango baitira, prestakuntza- eta ikaskuntza-eskaintza egin ahal izateko eta eskaintza hori kalitatezkoa izateko baldintzak ezarriko dituzte, eta horiek bete egin beharko dituzte sare horretako ikastetxeek, programa horietan parte hartu ahal izateko. Halaber, eskaintzaren berariazko baldintzak eta kalitate-indizeak ezarriko dituzte, hots, Eredu Konbinatuan Espezializatutako Lanbide Heziketako Ikastetxeen Euskal Sareko edozein ikastetxek programa horietan indibidualki parte hartzeko egiten dituen prestakuntza- eta ikaskuntza-proposamenek bete beharrekoak.



3. Aurreko paragrafoetan ezarritakoaren ondorioetarako, Eusko Jaurlaritzak programa orokorrak ezar ditzake, Lanbide Heziketako Eredu Konbinatua garatzeko prestakuntza- eta ikaskuntza-jarduerak ezartzeko.

4. Halaber, EAEko hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren arloan eskumena duen sailak, aurreko paragrafoetan adierazitako helburu berberekin, prestakuntza- eta ikaskuntza-jarduera bereziak bultzatu ahal izango ditu: jarduera berritzaileak izango dira; lortu nahi diren helburuetarako egokitzat jotzen den iraupena izango dute; eskaintza- eta kalitate-baldintza bereziak izango dituzte, eta Lanbide Heziketara ikuspegi berriak ekarri ahal izango dituzte. Jarduera horiek arrakastatsuak gertatzen badira, onurak izan ahalko ditu Lanbide Heziketako sistema osoak, oro har, edo haren eremuetakoren batek.

HIRUGARREN KAPITULUA IKAS-EKINEZKO ERREGIMENeko LANBIDE-HEZIKETA DUALA

15. artikulua.- Ikas-ekinezko Erregimeneko Lanbide Heziketa Duala sustatzea.

1. EAEko hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren arloan eskumena duen sailak, Lanbide Heziketako Eredu Konbinatuaren eremuan, norik bere lanpostuan ikastea bultzatuko du, lanbide-gaitasun eta -kualifikazioak eskuratzeko eta hobetzeko, hain zuzen ere, txandakako prestakuntza praktiko baten bidez. Ikaskuntza hori modu koordinatuan adostuko dute Lanbide Heziketako ikastetxeek eta enpresek.

2. EAEko hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren arloan eskumena duen sailak, Ikas-ekinezko Erregimeneko Lanbide Heziketa Dualaren proiektuetan, lan- eta enpresa-munduaren inplikazio-maila ahalik eta handiena izan dadin sustatuko du, hots, lan- eta enpresa-munduak prestakuntza-prozesuen helburu eta edukien definizioan bertan parte hartzea, ikasleak zuzenean sar daitezten enpresan egiten den lanaren garapen erreal eta egunerokoan.

3. EAEko hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren arloan eskumena duen sailak lehentasuna emango die Ikas-ekinezko Erregimeneko Lanbide Heziketa Dualaren eskaintzei, baldin eta horiek amaitu ostean ere kontratuak aurrera jarraitu behar badu.

4. EAEko hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren arloan eskumena duen sailak, Lanbide Heziketako Eredu Konbinatuaren eremuan, lanbide-espezializazioko programak sortzea bultzatuko du, jada Lanbide Heziketako titulu baten jabe direnen gaitasunak areagotu daitezten, eta, hartara, enplegu eta produkzio-sarearen beharrei erantzungo zaie. Espezializazio hori, batez ere, Ikas-ekinezko Erregimeneko Lanbide Heziketa Dualaren bidez lortuko da.

5. EAEko hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren arloan eskumena duen sailak Ikas-ekinezko Erregimeneko Lanbide Heziketa Dualaren ereduaren arabera egiten diren prestakuntza-jarduerak sustatuko ditu, haren modalitate guztietan.

6. EAEko hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren arloan eskumena duen sailak modu berezian sustatuko du Lanbide Heziketako Eredu Konbinatua osatzen duten elementuak Ikas-ekinezko Erregimeneko Lanbide Heziketa Dualaren proiektuetan sartzeari, eta berriaz bultzatuko du berrikuntza- eta ekintzaitza-ikaskuntzaren edukiak sartzeari.



16. artikulua.- Ikas-ekinezko Erregimeneko Lanbide Heziketa Duala sustatzeko ekintzak.

1. EAEko hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren arloan eskumena duen sailak eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, aurreko paragrafoetan ezarritakoaren ondorioetarako, EAEko Ikas-ekinezko Erregimeneko Lanbide Heziketa Dualaren ereduaren arabera egiten diren prestakuntza- eta ikaskuntza-jardueren sustatze-programak ezarriko dituzte.

2. Aurreko paragrafoan adierazitako prestakuntza- eta ikaskuntza-jardueren sustatze-programak EAEko hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren arloan eskumena duen sailak zehaztu ahal izango ditu beraren titulartasunpean dauden ikastetxeen eremuan; edo, bestela, lankidetzarako bitartekoen bidez egingo da hori, titulartasun pribatuko ikastetxeekin, enpresekin edo antzeko erakundeekin batera.

3. Ikastetxearen, enpresaren edo antzeko erakunde baten arteko erabaki edo hitzarmen baten bidez zehaztuko da nola ezarri behar diren Lanbide Heziketa Dualaren ereduaren arabera prestakuntza- eta ikaskuntza-jarduerak egiteko programak. Erabaki edo hitzarmen horrek honako hauek zehaztuko ditu: egin behar diren prestakuntza- eta ikaskuntza-jardueren ezaugarriak, lortu nahi diren helburuak, kostuak, eta alderdi bakoitzaren betebeharrak, izan antolakuntzakoak, prestakuntza-eskaintza gauzatzeari buruzkoak, finantzarioak edo beste mota batekoak, betiere, beharrezkoak badira jarduera behar bezala egiteko eta ezarritako helburuak lortzeko. Halaber, enpresako tutoreak eta prestakuntza-zentroetako irakasleak koordinatzeko mekanismoak jaso behar dira. Hori guztia aurrera eramateko, jarduera-plan bat egingo da, zeina aurrez adostu beharko baita prestakuntza-zentroaren eta enpresaren artean. Nolanahi ere, lan arloko araudian ezarritakoari jarraituko zaio, heziketa duala lan-kontratu baten bidez egiten bada.

4. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak Ikas-ekinezko Erregimeneko Lanbide Heziketa Duala bultzatzeko neurri ekonomikoak eta fiskalak bideratuko ditu, erakunde eskumendunen artean.

LAUGARREN KAPITULUA LANBIDE HEZIKETARAKO KOORDINAZIO, PLANGINTZA, ZUZENDARITZA, KUDEAKETA ETA AHOLKULARITZAKO ORGANOK

17. artikulua.- Lanbide Heziketako Euskal Sistema arautzea.

Eusko Jaurlaritzak Lanbide Heziketako Euskal Sistema bultzatu eta arautu behar du, eragile sozialen eta bizialdi osoko ikaskuntzaren euskal sistemako eragileen lankidetzarekin.

18. artikulua.- Lanbide Heziketako Koordinazio Organo Gorena.

1. Lanbide Heziketako Koordinazio Organo Gorena eratuko da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren barruan, sail arteko organo gisa jardun dezan eta Lanbide Heziketaren arloko politika nagusiak eta helburu zehatzak ezar ditzan.

2. Organo horri dagokio, halaber, sail batzuen eta besteen estrategietan eragiten duten Lanbide Heziketaren arloko politiken koordinazioa, baita Eusko Jaurlaritzak erregelamenduz esleitzen dion beste edozein eginkizun ere.



3. Lanbide Heziketako Koordinazio Organo Gorenak, eginkizun horiek aurrera eramateko, kontuan izango ditu Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluaren proposamenak, baita Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikei buruzko abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 70. artikuluan adierazitako batzorde mistoak egin ditzakeen proposamenak ere.

4. Hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketan, Enplegurako Lanbide Heziketan eta nekazaritzaren arloko Lanbide Heziketa ez-arautuan eskumena duten sail eta erakundeek, bakoitzaren eskumenen barruan, Lanbide Heziketaren programazioa eta kudeaketa egingo dute, Koordinazio Organo Gorenak emandako gidalerroei jarraikiz. Horrek guztiak ez du eragotziko Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legearen 45.4 artikuluan ezarritakoa, bizialdi osoko ikaskuntzako gainerako plan eta programei dagokienez.

19. artikulua.- Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua.

1. Administrazio publikoek eta ordezkartzarik handieneko erakunde enpresarial eta sindikalek parte hartzen dute Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluan, zeinetan Lanbide Heziketako politikei buruz eztabaidatzen baitute, adostasun eta akordio batera heltzeko. Kontseilu horrek ekimenak proposatuko ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketa hobetzeko baliagarriak izango direla jotzen duen heinean; eta, horiekin batera, erregelamenduz zehaztutako ekimenak ere sustatuko ditu. Lanbide Heziketako ikastetxeetako ordezkariak ere parte hartuko dute kontseiluan, hitzarekin baina botorik gabe.

2. Eusko Jaurlaritzak erregelamenduz zehaztuko ditu Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluaren osaera eta eginkizunak, lege hau indarrean jarri eta urtebeteko epean.

3. Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluak aholku emango dio Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari, Lanbide Heziketako Euskal Sistemari buruz aztertzeko ematen zaizkion gaietan, eta eremu horretan beharrezkotzat jotzen dituen ekimenak proposatuko ditu.

4. Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluak Lanbide Heziketaren Sistema ebaluatuko du, lege honen bederatzigarren kapituluan adierazitako moduan.

20. artikulua.- Aholkularitzako erakunde teknikoak.

Lege honetan ezarritako helburuak lortzeko, Eusko Jaurlaritzak beharrezkoak diren aholkularitzako erakunde teknikoak izango ditu, erregelamenduz ezartzen den menpekotasunarekin.

BOSGARREN KAPITULUA LANBIDE KUALIFIKAZIO ETA ESPEZIALIZAZIOEN EUSKAL ESPARRUA

21. artikulua.- Lanbide Kualifikazio eta Espezializazioen Euskal Esparrua.

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak Lanbide Kualifikazio eta Espezializazioen Euskal Esparrua sortuko du, Lanbide Heziketako Sistema Orokorrean zehaztutako kualifikazioak zabaldu ahal izateko eta, hartara, behar bezala egokitzeko EAEk produkzio-sisteman eta okupazioaren eta enpleguaren arloetan dituen beharrian zehaztetara eta arlo horietan eragina duten eraldaketetara. Esparru hori Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legean zehaztutako bizialdi osoko ikaskuntzarako Kualifikazioen Euskal Esparruan sartuko da, eta haren zati izango da.



2. Lanbide Kualifikazio eta Espezializazioen Euskal Esparruaren barruan izango dira, orobat, EAEko enpresen edo produkzio-sektore estrategikoen kualifikazio-beharrizan berezietarako Lanbide Espezializazioko Programak (bereziki, industriaren arloari begira), zeinak Ikas-ekinezko Erregimeneko Lanbide Heziketa Dualaren bidez edo berariazko programen bidez garatu ahal izango baitira. Lanbide-espezializazioko programa horiek 1/2013 Legearen 12. artikulua 2. zenbakiaren e) letran aipatutako kualifikazio- eta birkualifikazio-programen barruan sartu behar dira (1/2013 Legea, urriaren 10ekoa, Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzkoa).

3. Lanbide Kualifikazio eta Espezializazioen Euskal Esparrua honela osatuko da: batetik, Kualifikazioen Katalogo Nazionaleko lanbide-kualifikazioak, zeinak erreferentzia gisa erabiliko baitira Estatuaren Gobernuak ezarritako titulueterako, espezializazio-ikastaroetarako eta profesionaltasun-ziurtagirietarako; eta, bestetik, berariazko kualifikazioak, Euskal Autonomia Erkidegokoak, zeinak erreferentzia gisa erabiliko baitira Lanbide Espezializazioko Programetarako eta Lan Administrazioaren Prestakuntza Espezialitateen Euskal Katalogoan sartutako Enplegurako Lanbide Heziketako prestakuntza-espezialitate batzuetarako.

4. Lanbide Espezializazioko Programak zehazteko, Euskal Autonomia Erkidegoko produkzio-sektoreetako eskariari kontu egingo zaio, eta haiekin batera diseinatuko dira programok. Izan ere, programa horien bidez, prestakuntza-baliabide zehatzak eman nahi zaizkio produkzio-sistemari, pertsonen prestakuntza-prozesua hobetzeko Lanbide Heziketako esparru orokorrean katalogatu gabeko goi-mailako kualifikazioa behar den testuinguruetan.

5. Indarrean dagoen oinarrizko araudian ezarritakoa gorabehera, enpresak sortzeko eta zerbitzuak emateko askatasuna gorabehera, eta finantzaketaren ondorioetarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak lehentasuna emango dio Lanbide Kualifikazio eta Espezializazioen Euskal Esparruan sartutako prestakuntza-ekintzak –batez ere, EAEk bereak dituen Lanbide Espezializazioko Programak– honako ikastetxe hauetan egiteari: lege honen hirugarren kapituluaren zehaztutako Eredu Konbinatuan Espezializatutako Lanbide Heziketako Ikastetxeen Euskal Sarea osatzen duten Lanbide Heziketako ikastetxeetan; eta, salbuespen gisa eta interes orokorrak edo sektorialak hala eskatzen badu, baita beste administrazio publiko batzuen mendeko edo haiek baimendutako ikastetxeetan ere, betiere, Lanbide Kualifikazioen eta Espezializazioen Euskal Esparruan sartutako kualifikazioak egiaztatzen bideratutako prestakuntza-ekintzak irakasteko ezarritako baldintzak betetzen badituzte, enplegua sustatzen badute, eta administrazio eskudunak behar bezala baimentzen baditu.

6. Lehentasuna emango zaie enplegua lortzeko bidea hobetzen eta bizkortzen laguntzen duten prestakuntza-ekintzei, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoaren produkzio-sarearen lehiakortasuna hobetzen laguntzen dutenei ere.

7. Lanbide Heziketaren eremuan egiten diren prestakuntza-jarduerak, lanbide-kualifikazio guztiak edo batzuk lortzen edo hobetzen laguntzen duten heinean eta Lanbide Kualifikazio eta Espezializazioen Euskal Esparruaren barruan jasota dauden heinean, aitorpen-, egiaztapen- eta ziurtapen-prozedura bat izango dute.

8. Ikastetxe pribatuetan Kualifikazio eta Espezializazioen Euskal Esparruan jasotako prestakuntza-ekintzak irakasteko, erregelamendu bidez ezarritako baldintzetan oinarritutako baimena beharko da. Ikastetxe publikoetan Lanbide Espezializazioko Programak irakasteko baimena ikastetxe horietako irakaskuntzaren plangintzaren gaineko eskumena duen organoak emango du.



22. artikulua.- Lanbide Kualifikazio eta Espezializazioen Euskal Esparruko prestakuntza-ekintzen onarpena, aitortzea eta egiaztapena.

1. Lanbide-espezializazioko programak hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren arloan eskumena duen sailak diseinatu, onartu eta argitaratu ditu. Programa bakoitzerako, gutxienez honako hauek adierazi beharko dira: izena, lanbiderako kompetentzia orokorra, sartzeko behar den prestakuntza edo prestakuntzak, iraupena (guztira) eta dagokion prestakuntza. Gainera, programaren beharra zer ekoizpen-sektorek edo enpresa-taldek duten ere jasoko dute, bai eta programa emateko bete behar diren baldintzak ere.

2. EAEko Lanbide Espezializazioko Programei dagokien prestakuntza behar bezala egiaztatuko du hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren arloan eskumena duen sailak, prestakuntza horren edukari eta iraupenari buruzko ziurtagiri zehatz baten bidez. Ziurtagiri horiek berriazko erregistro batera eramango dira, zeinetan sartuko baitira bai lanbide-profila (izena eta kompetentzia orokorra), bai dagokion prestakuntza, ikaskuntzako emaitzekin.

3. Aurreko paragrafoan ezarri den horretarako, sistema integratu bat sustatuko du Lanbide Heziketako Koordinazio Organo Gorenak, haren bidez aitortzea eta egiazta daitezkeen Lanbide Kualifikazioen eta Espezializazioen Euskal Esparruko prestakuntza-ekintzak.

SEIGARREN KAPITULUA LANBIDE HEZIKETAKO EUSKAL SISTEMA NAZIOARTEKOTZEA

23. artikulua.- Lanbide Heziketako Euskal Sistema nazioartekotzea.

1. EAEko Lanbide Heziketa nazioartekotzeko prozesua sustatuko du Eusko Jaurlaritzak.

2. Helburu hori lortzeko, irakasleak eta ikasleak trukatzeko nazioarteko programak eratu ditu, esperientziak trukatu eta jardunbide onak parteka eta hedatu daitezkeen, eta, bide batez, irakasle eta ikasleen konpromisoa eta motibazioa ere sustatu daitezkeen.

3. EAEko hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren arloan eskumena duen sailak, Lanbide Heziketako Euskal Sistema nazioartekotzeko prozesua sustatzeko, berriaz bultzatuko du aktiboki parte har dadin Lanbide Heziketaren nazioarteko sare nagusietan; izan ere, sare horien bidez ezagutza zabaltzeko eta esperientziak trukatu ahal izango dira hainbat arlotan: prestakuntzan, orientazioan, ikastetxeen kudeaketan, teknologia digitaletan eta berrikuntza eta hobekuntza dakarten gainerako arlo guztietan.

4. Norabide biko truke-programak eratu ahal izango dira, euskal sistemako irakasle eta ikasleek egonaldiak egin ditzaten beste herrialde batzuetako ikastetxeetan eta, aldi berean, beste herrialde batzuetako irakasle eta ikasleek Lanbide Heziketako Euskal Sareko ikastetxeetan eta jardueretan parte har dezaten. Atzerriko ikasleak Lanbide Heziketako Euskal Sistemara erakartzeko, jarduera zehatzak sustatuko ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak; besteak beste, nazioarteko campusak.

5. Horretarako, Lanbide Heziketako jardueretan beste hizkuntza batzuen ikaskuntza sartzeari bultzatuko da, bai Hasierako Lanbide Heziketan, bai, hala badagokio, Enplegurako Lanbide Heziketan.



6. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak nazioarteko ikerketa-proiektuak sustatuko ditu, Lanbide Heziketari lotutako nazioarteko ikerketa- eta berrikuntza-programen esparruan.

24. artikulua.- Lanbide Heziketako Euskal Sistemak beste herrialde batzuetan egingo duen prestakuntza-jardueren eskaintza.

1. Beste herrialde batzuetan ere Lanbide Heziketako Euskal Sistemaren prestakuntza-jarduerak eskaini daitezten sustatuko du EAEko hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren arloan eskumena duen sailak, eta, horretarako, sustapen- eta laguntza-ekintza espezifikoak ezarri ahal izango ditu. Eskainiko diren prestakuntza-jarduerak Lanbide Kualifikazioen Katalogoan jasotakoekin bat etorriko dira edo ez, baina Lanbide Heziketako Euskal Sistemaren barruan jasota egon beharko dute beti.

2. EAEko hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren arloan eskumena duen sailak berariaz sustatuko ditu atzerriko prestakuntza-jarduerak, EAEko enpresek beste herrialde batzuetan dituzten lan-guneetan egitekoak direnak. Horretarako, egokien irizitako programak edo ekintzak planifikatu edo baimendu ahal izango ditu (baita Ikas-ekinezko Erregimeneko Lanbide Heziketa Dualeko programen bidez edo Lantokiko Prestakuntzaren moduluen bidez ere), prestakuntza-eskaintza nazioartekotutako enpresen beharrezanetara egokituta, beste kultura batzuetan prestatzeko metodologia didaktikoak garatuta eta herrialde horietan Etengabeko Lanbide Heziketa emateko behar diren mekanismoak ezarrita.

25. artikulua.- Lanbide Heziketako Euskal Sistema beste herrialde batzuetara hedatzea.

EAEko hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren arloan eskumena duen sailak beste eskualde edo herrialdeekiko lankidetzara sustatuko du, Lanbide Heziketako sistemak diseinatzeko eta ezartzeko, eta EAEn metatutako ezagutza eta esperientzia eskainiko du horretarako.

ZAZPIGARREN KAPITULUA HIZKUNTZA OFIZIALAK ETA ATZERRIKO HIZKUNTZAK, LANBIDE HEZIKETAN

26. artikulua.- Hizkuntza ofizialak, prestakuntza-prozesuetan.

1. Egokiro bete dadin hezkuntza Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan jasotzeko eskubidea bai, halaber, lanbide- eta lan-jarduerak euskaraz egiteko eskubidea ere — biak ala biak berariaz aintzatetsiak indarrean den legedian—, bai euskara eta bai gaztelania ezinbestean jasoko dira Lanbide Heziketa guztiko prestakuntza-programetan, ikasleek trebezia nahikoa garatu dezaten ahozko zein idatzizko ulermenean eta adierazpenean, betiere, arreta berezia jarrita dagokion arlo profesionalean. Halaber, bai EAEko hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren arloan eskumena duen sailak, bai Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak Lanbide Heziketako ikastetxeetan euskara erabiltzea sustatuko dute, hots, euskara ohiko komunikazio-hizkuntza izatea, barneko zein kanpoko jardunean eta administrazio-jarduera eta dokumentuetan.



2. Lanbide Heziketako prestakuntza-programek bermatu egingo dute jarraipen egokia ematen zaiola Bigarren Hezkuntzan finkatutako hizkuntza-trataerari; hala, behar diren neurriak hartuko dira Lanbide Heziketara igarotzean etenik gerta ez dadin aurreko etapetan egindako hizkuntza-aukerekiko. Ildo horretatik, EAeko hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren arloan eskumena duen sailak zabaldu egingo du euskarazko hezkuntza-eskaintza Lanbide Heziketan; hala, batetik, D ereduaren sustatuko du, eta, bestetik, euskarazko ikaskuntza eta profesionalizazioa indartuko duen B ereduaren (elebiduna) ezarriko du arian-arian, planifikazio bati jarraituta. Era berean, A ereduaren ere euskarazko ikasgaiak txertatzea bultzatuko du.

3. Hizkuntza-plangintza orokorrarekin koordinatuta egingo da Lanbide Heziketako hizkuntza-plangintza, eta, haren barruan, euskarazko Lanbide Heziketa bermatuko da, kontuan hartuta, betiere, honako hauek: zer-nolako eskaera eta errealitate linguistikoa dagoen dena delako ikastetxearen esparruan eta hezkuntza-etapa bakoitzean, zein den eremu horretako egoera linguistikoa eta, zehazki, zein diren ikastetxe horretan eskaintzen den Lanbide Heziketaren berezitasunak eta helburuak.

4. Lanbide Heziketaren hizkuntza-plangintzaren esparruan, EAeko hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren arloan eskumena duen sailak behar diren neurriak hartuko ditu eskaintzen diren titulazio guztiak euskaraz irakasteko behar den eskola-materiala era dadin; era berean, behar diren neurriak hartuko ditu, irakasleek, arian-arian, euskarazko irakaskuntza-eskariari erantzuteko euskara-gaitasun egokia eta nahikoa izan dezaten.

5. Aurreko paragrafoan zehaztutako plangintzaren barruan, ikastetxe bakoitzak bere hizkuntza-ereduaren egitura zehaztuko du, plangintza orokorrera egokituta, eta kontuan hartuko du zer hizkuntza-proiektu duen, zer ingurutan dagoen kokatuta eta zer-nolako inguruabarrak dituen prestakuntza-prozesuaren xede den arlo profesional bakoitzak; era berean, aintzakotzat hartuko du hizkuntza biak komunikazio-hizkuntzat erabiltzea bide aproposa dela kasu bakoitzean egokiro bateratzeko elebitasunaren helburua eta kasuan kasuko prestakuntza-edukiak irakasteko helburua.

6. Bai praktika-programetan, bai ikas-ekinezko Erregimeneko Lanbide Heziketa Dualeko programetan, enpresetan edo antzeko zentroetan egiten diren praktikei eta prestakuntzari dagokienez (bai Hasierako Lanbide Heziketan, bai Enplegurako Lanbide Heziketan), enpresaren hizkuntza-errealitatea hartuko da bereziki kontuan, programa horiek egokiro bateratu ahal izateko ikasleen hizkuntza-ereduarekin eta eskariarekin.

7. Enplegurako Lanbide Heziketako jardueren eta programen barruan, euskaraz ikasteko programak emango dira HABEekin egindako akordioaren bitartez, ikasleek ahozko eta idatzizko komunikazio-gaitasunak garatu ditzaten dena delako arlo profesionalean, eta, hartara, lanbidezereginak hobeto bete daitezten edo lanbide-aukerak hobetu daitezten.

8. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek beharrezkoak diren neurriak bultzatuko ditu Lanbide Heziketako irakasleen euskara-gaitasuna hobetzeko.

27. artikulua.- Eleaniztasuna, prestakuntza-prozesuetan.

1. Bai Hasierako Lanbide Heziketan, bai Enplegurako Lanbide Heziketan atzerriko hizkuntzak sartzeari lehentasunezko helburua da Euskadiko Lanbide Heziketako Sistema Integratua garatzeko.



2. Izan ere, atzerriko hizkuntzak ikasita, profesionalak, prestakuntza-prozesua amaitutakoan, beren arlo profesionalerako komunikazio-prozesuak normaltasunez garatzeko gai izango dira ahoz zein idatziz.

3. Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, eredu hirueledun baten bidez zehaztuko da Lanbide Heziketako eleaniztasuna. Eredu horren barruan, bi hizkuntza ofizialetan eta atzerriko hizkuntza batean (lehentasunez, ingelesa) emango dira Lanbide Heziketako heziketa-zikloak, eta horren helburua izango da oinarritzkoa eta nahikoa izango den komunikazio-gaitasuna lortzea, ahoz zein idatziz, dagokion lanbide-arloan. Ikastetxe bakoitzean zehaztuko da hizkuntza-eredu horren egitura, eta hiru hizkuntzen ordu-banaketa egiteko, kontuan izango dira honako hauek: hizkuntza-proiektua, ingurua, prestakuntza-prozesuaren xede den lanbide-arlo bakoitzaren ezaugarriak.

4. Hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren arloan eskumena duen sailak erregelamenduz ezarriko du zein irizpide jarraitu behar diren ingelesa edo atzerriko beste hizkuntza batzuk komunikazio-hizkuntza gisa sartzeko Lanbide Heziketako zenbait gaitan, betiere, kontuan izanik eskaintzaren plangintza eta ikastetxeek euren hizkuntza-proiektuan erakusten duten eskaria. Irakasleen hizkuntza-gaitasuna ere ezarriko du, zeinak modulua atzerriko hizkuntza batean emateko egokia eta nahikoa izan beharko baitu.

5. Enplegurako Lanbide Heziketan ingelesa ikasteko programak sustatuko dira, hizkuntza horretan ahoz zein idatziz komunikatzeko gaitasuna hobetzeko dena delako arlo profesionallean.

6. Atzerriko hizkuntzak ikasteko programak sustatuko dira, hala badagokio, Enplegurako Lanbide Heziketako jardueretan, dena delako arlo profesionallean edo enpresarialean komenigarritzat jotzen bada ingelesaz bestelako atzerriko hizkuntza bat ezagutzea lanbide arlo horretako zereginak hobeto betetzeko edo lan-aukerak hobetzeko.

7. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak beharrezkoak diren neurriak bultzatuko ditu, Lanbide Heziketako irakasleek ingelesean, eta, hala badagokio, atzerriko beste hizkuntza batzuetan duten gaitasuna hobetzeko.

ZORTZIGARREN KAPITULUA IKERKETA, BERRIKUNTZA ETA ETENGABEKO HOBEKUNTZA, LANBIDE HEZIKETAKO EUSKAL SISTEMAN

28. artikulua.- Ikerketa, Lanbide Heziketan.

1. Lanbide Heziketari buruzko ikerketak, zuzenean edo zeharka, lagungarria izan behar du Lanbide Heziketako Euskal Sistema Integratua garatzeko eta etengabe hobetzeko, nazioarteko proposamen aurreratuenei lotuta.

2. EAEko hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren arloan eskumena duen sailak Lanbide Heziketaren arloko ikerketa bultzatuko du, sistemaren hobekuntza susta dadin eta lortutako guztiak honako honetan lagundu dezan: arlo hori nazioartean ikerketarako arlo espezifikotzat jotzen eta EAEk eta bertako ikerlariak eremu horretan leku bat izaten.

3. Lanbide Heziketako ikerketa hezkuntzaren arloko ikerketa orokorrarekin, ekonomiarekin eta enpresaren munduarekin elkartu behar da, erregelamenduz ezartzen diren bitartekoen bidez.

29. artikulua.- Berrikuntza, kalitatea eta etengabeko hobekuntza sustatzea Lanbide Heziketa Integratuan.

1. EAEko hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren arloan eskumena duen sailak programa espezifikoak eratuko ditu, berrikuntza aplikatua sustatzeko Lanbide Heziketan eta Lanbide Heziketa ematen duten ikastetxeetan.

2. EAEko hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren arloan eskumena duen sailak, aldian-aldian, Lanbide Heziketako berrikuntza-programen eta -jardueren emaitzak ebaluatuko ditu, eta, horrekin batera, lankidetzaren sareak eratuko ditu, berrikuntza-jardunbide onenak zabaltzeko ikastetxeek egiten dituzten Lanbide Heziketako jardueretan.

3. Eusko Jaurlaritzak arau eta egiaztapenen zerrenda bat eratuko du, kalitatea eta etengabeko hobekuntza garatzeko Lanbide Heziketa Integratuaren arlo bakoitzean; kudeaketa aurreratuko ereduarekin bat etorri behar dute arau horiek, eta aldian-aldian berrikusiko dira.

30. artikulua.- Irakasleen prestakuntza.

1. Lanbide Heziketan berrikuntza eta kalitatearen hobekuntza sustatzeko, ezinbestekoa izango da irakasleak etengabe prestatzea; horretarako, laguntza emango zaie metodologikoki eguneratuta egoteko eta eduki profesional espezifikoak berenganatzeko.

2. Aurreko paragrafoan adierazitakoa betetzeko, EAEko hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren arloan eskumena duen sailak prestakuntza-programak eratuko ditu, eta, horietan, Lanbide Heziketako Eredu Konbinatua garatzeko prestakuntzari emango dio lehentasuna.

3. Prestakuntza-zentroetan edo beren lan-prozesu edo -jardunbide aurreratu eta berritzaileengatik nabarmenak diren enpresetan egin ahal izango dituzte irakasleek Etengabeko Lanbide Heziketarako programak.

31. artikulua.- Berrikuntzarako eta kalitatearen hobekuntzarako egiturak.

1. Lanbide Heziketaren berrikuntza eta kalitatea hobetzeko xedez, ikastetxeen antolamendu- eta kudeaketa-autonomia indartzeko mekanismoak garatuko ditu EAEko hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren arloan eskumena duen sailak, ikastetxe publikoak beren burua kudeatzeko gai izan daitezen (beren inguruneari lotuta), eta, hartara, jarduerak eta proiektuak malgutasunez, arintasunez, fidagarritasunez eta eraginkortasunez garatzeko ahalmena izan dezaten.

2. Horretarako, sail horrek hau sustatu behar du: Lanbide Heziketako ikastetxeak jakintza-unitate espezializatu modura egituratzea, eta sarean lan egitea, beste ikastetxe, enpresa eta erakunde batzuekin elkar hartuta aritu daitezen, inguruan sortzen diren beharriak konponbidea emate aldera. Hala, kudeaketa-eredu berritzaileak sustatuko ditu ikastetxe horietan, eta sormena ere indartuko du ikastetxeek garatuko dituzten funtsezko prozesuetan.

3. Halaber, aurreko paragrafoetan adierazitako hori betetzeko, EAEko hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren arloan eskumena duen sailak baimena eman ahal izango du Lanbide Heziketako ikastetxe publikoetan aldi baterako antolamendu-egitura espezifikoak sortzeko (oro har izaten duten ohiko antolamendu formal egonkorraz bestelakoak), proiektu jakinak egin ahal



izateko. Antolamendu-egitura horiek oro har ezarrita dagoenaz bestelako modu batean bilduko dituzte irakasleak –izatez zeinahi sailtakoak direla ere–, eta proiektu jakin bat egiteko betekizuna eman ahal izango zaie egitura espezifiko horiei.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA LANBIDE HEZIKETAKO EUSKAL SISTEMA EBALUATZEA

32. artikulua.- Lanbide Heziketako Euskal Sistema aldian-aldian ebaluatzea.

Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikei buruzko abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 70. artikuluan aurreikusitako batzorde mistoak ebaluazioaren arloan esleituta dituen eskumenak alde batera utzi gabe, gutxienez hiru urtean behin, Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluak ebaluatu egingo ditu Lanbide Heziketako Euskal Sistemaren prestakuntza- eta ikaskuntza-jarduerak, bereziki kontuan hartuta honako hauek guztiak: jarduera horiek nola egokitzen diren euskal ekonomia-sistemaren beharretara; enplegarritasun-tasak, ikastaroak, moduluak edo beste prestakuntza-ekintza batzuk egin dituztenek zer emaitza lortu dituzten; zenbatek utzi dioten jarduera horiek egiteari; enplegua nola egokitzen den jasotako prestakuntzara, eta antzeko beste datu batzuk. Batzorde misto horrek, aldian-aldian, txostena bidaliko dio Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluari, nekazaritza-arloko Lanbide Heziketaren eremuan egindako ebaluazioen emaitzei buruz.

33. artikulua.- Lanbide Heziketako Eredu Konbinatuaren garapena eta Lanbide Heziketa Dualaren eskaintza ebaluatzea.

1. Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluak honako hauek ere berariaz ebaluatuko ditu, gutxienez, hiru urterik behin: zer garapen izan duten Lanbide Heziketako Eredu Konbinatua garatzeko jardueren sustapen-programek; zenbateraino egin duten aurrera bai Lanbide Heziketa Integratuko jarduerak, bai berrikuntzan eta ekintzailertzan trebatzeko jarduerak, eta zer emaitza lortu dituzten.

2. Ikas-ekinezko Erregimeneko Lanbide Heziketa Duala sustatzeko programak ere berariaz ebaluatuko dira, modu berean eta maiztasun berarekin.

34. artikulua.- Lanbide Heziketako Euskal Sistemaren ebaluazioak eta programa espezifikoaren gainean egindako ebaluazioak ikuskatzea.

Lanbide Heziketako adituen nazioarteko batzorde batek aldian aldiko ebaluazio horiek aztertu ahal izango ditu, egindako ebaluazio teknikoa ikuskatu eta, hartara, Lanbide Heziketako Euskal Sistema hobetzeko eta garatzeko neurriak proposa ditzan.



LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA.- Lanbide Heziketako aholkularitzako erakunde teknikoak.

1. Lege honetako 19. artikuluan adierazitako aholkularitzako organismo teknikoak Eusko Jaurlaritzak sortu, aldatu eta ezabatuko ditu erregelamendu bidez.

2. Erakunde horiei atxikitako lanpostuak betetzeko sistema merezimendu-lehiaketaren bidezkoa izango da, zeina EAEko hezkuntza-sistemaren Lanbide Heziketaren arloan eskumena duen sailak egingo baitu, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako irakasleen kidegoei buruzko otsailaren 19ko 2/1993 Legean ezarritako baldintzetan.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.- Eredu Konbinatuan Espezializatutako Lanbide Heziketako Ikastetxeen Euskal Sareko ikastetxeetako irakasleen lanpostuak betetzea.

1. Eredu Konbinatuan Espezializatutako Lanbide Heziketako Ikastetxeen Euskal Sarekoak diren Hezkuntza Administrazioaren mendeko ikastetxeak irakasleez hornitzeko orduan, berariaz hartuko da kontuan zer beharizan espezifiko dauden Lanbide Heziketako Eredu Konbinatua garatzeko.

2. Ikastetxeek, beren hezkuntza-proiektuak aintzat hartuta, eska dezakete honako hauek egitea, ikastetxeko lanpostu jakin batzuetan:

a) Titulazio eta lanbide-gaitasunari buruzko baldintzak ikastetxearen lanpostu-zerrendan sartzea.

b) Hainbat titulu eta lanbide-gaitasun merezimendu gisa baloratzea lanpostuak betetzeko prozeduretan.

c) Lanpostuan aritu behar duenaren betebeharrak gisa ezartzea honako hau: birziklatze-jardueretan parte hartzea, lanpostuari esleitutako funtzioak behar bezala egiteko gaitasun iraunkorra izan dezan.

3. Behar diren neurriak hartuko dira erregelamendu bidez, ikastetxe publikoetako gobernu-organoei lanpostuak betetzeko prozesuan parte har dezaten.

LEHEN XEDAPEN IRAGANKORRA

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen ez diren bitartean eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen ez diren bitartean (aldaketa hori ezinbestekoa baita lege honen 18. artikuluan zehaztutako organoa sortzeko), egun indarrean dagoen araudiak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari emandako eskumenak (zeinak gerora organo berri horrek baliatuko baititu) erakunde autonomo horrek izango ditu, baita eraginpeko beste sail eta erakunde batzuei dagozkienak ere.

BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

Harik eta Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua eratzen eta martxan jartzen den arte (lege honen garapenean ematen den erregelamenduzko arauaren arabera), haren baliokide den egungo organoak jarraituko du funtzioak betetzen.



LEHEN XEDAPEN INDARGABETZAILEA.- Indargabetuta geratzen da Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legearen 23. artikulua.

BIGARREN XEDAPEN INDARGABETZAILEA.- Indargabetuta geratzen dira, orobat, lege honen maila berekoak edo beheragokoak izanik, beronek xedatutakoarekin bat ez datozen xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA.- Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legearen 6. artikuluaen aldaketa.

6. artikulua.- Kalitate-bermea.

1. Kalitatea bizialdi osoko ikaskuntzako sistemaren planen eta programen multzoaren oinarriko printzipioa da, eta ikaskuntzaren emaitzak, ematen diren zerbitzuen eraginkortasuna eta efizientzia eta hartzaileen eta beste interes-taldeen gogobetetasuna hobetzera zuzenduta egongo da.

2. Eusko Jaurlaritzak bizialdi osoko ikaskuntzako euskal sisteman kalitatearen kultura indartzea sustatuko du, barne- eta kanpo-ebaluazioko prozesuen bidez, emaitzak eta errendimendua hobetzeko prozesuen bidez, eta, orobat, kalitatea bermatzeko esparruaren Estatuko eta Europako sarean parte hartuz.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA.- Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legearen 24. artikuluaen aldaketa (Prestakuntza eta ikaskuntzako eskaintza).

Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legearen 24. artikuluaen 5. zenbakia honela geratzen da:

«5. Hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren arloan, nekazaritza-sektoreko Lanbide Heziketa ez-arautuan eta Enplegurako Lanbide Heziketan eskumena daukaten sail eta erakunde eskudunek, euren eskumenen eremuan, Lanbide Heziketan zer eskainiko den zehaztuko dute, betiere, kontuan hartuta, batetik, Lanbide Heziketako Euskal Plana, eta, bestetik, EAEko Lanbide Heziketaren Legearen 17. artikuluan zehaztutako Lanbide Heziketako Koordinazio Organo Gorenak ezarritako irizpideak eta lehentasunak».

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA.- Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legearen 32. artikuluaen aldaketa (Lanbide-heziketako eskaintza bateratua).

Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legearen 32. artikuluaen 2. zenbakia honela geratzen da:

«2. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eta hezkuntzaren arloan eskumena duen sailak prozedura bat ezarriko dute Hasierako Lanbide Heziketa emateko baimena duten ikastetxeek Enplegurako Lanbide Heziketa ere eman ahal dezaten. Hasierako Lanbide Heziketa ematen duten ikastetxe publikoek automatikoki izango dute baimena euren hezkuntza-eskaintzan sartutako heziketa-zikloekin bat datorren Enplegurako Lanbide Heziketa emateko».



AZKEN XEDAPENETATIK LAUGARRENA.- Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legearen 40. artikulua aldaketa (Bizialdi Osoko Orientazio Sistema Integratua).

Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legearen 40. artikulua 6. zenbakia honela geratzen da:

«6. Lanbide Heziketaren esparruan, hezkuntzan eta enplegurako formakuntzan eskumena duten sailek zehaztuko dute zer-nolako orientazio-eredua garatu behar den, zer-nolako neurriak, tresnak eta baliabideak behar diren bizialdi osoko orientazioaren eginkizunak garatzen laguntzeko, eta zer-nolako lankidetzak-formulak behar diren sail bakoitzaren zerbitzuak eta eginkizunak definitzeko. Horretarako, EAeko Lanbide Heziketari buruzko Legearen 17. artikuluan zehaztutako Lanbide Heziketako Koordinazio Organo Gorenak ezarritako jarraibideei jarraituko zaie, eragile sozialek ere parte hartuko dute, eta, aurrez, Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluari entzungo zaio».

AZKEN XEDAPENETATIK BOSGARRENA.- Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legearen 45. artikulua aldaketa (Bizialdi osoko ikaskuntzako kontseiluak).

Aldatu egiten da Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legearen 45. artikulua 4. zenbakia. Honela gelditzen da:

«4. Bizialdi osoko ikaskuntzako plan eta programek osotasunean jasoko dituzte EAeko Lanbide Heziketari buruzko Legearen 17. artikuluan zehaztutako Lanbide Heziketako Koordinazio Organo Gorenaren proposamenak eta lehentasunak, horiek erreferenteak izango baitira prestakuntza eta orientazio profesionalaren planifikazioari, garapenari, kalitatea bermatzeko markoari eta ebaluazioari dagokionez».

AZKEN XEDAPENETATIK SEIGARRENA.- Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legearen 47. artikulua aldaketa (Eginkizunak).

Aldatu egiten dira Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legearen 47. artikulua 2. eta 3. zenbakiak. Honela gelditzen dira:

«2. Bizialdi Osoko Ikaskuntzako Plana egitea, zeina egin behar baita eragileen ekimenak koordinatuz eta EAeko Lanbide Heziketari buruzko Legearen 17. artikuluan zehaztutako Lanbide Heziketako Koordinazio Organo Gorenak lanbide-heziketari buruz ematen dituen jarraibideei kasu eginez, bai eta Gizarte Ongizaterako Kontseiluak helduen ikaskuntzari dagokionez emandako norabideak jarraituz».

«3. Onartzea bizialdi osoko ikaskuntzaren kalitatea bermatzeko markoa, errespetatuz EAeko Lanbide Heziketari buruzko Legearen 17. artikuluan zehaztutako Lanbide Heziketako Koordinazio Organo Gorenak lanbide-heziketako programetarako prestatutako markoa, eta ebaluatzea marko horren helburuak zenbat bete diren eta etengabeko hobekuntzarako zer neurri hartu diren».



AZKEN XEDAPENETATIK ZAZPIGARRENA.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasei eta Prezio Publikoei buruzko Legearen Testu Bateginaren IV. Tituluaren X. Kapituluaren datatzea (testu hori irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen).

Irailaren 11ko 1/2007 Legegintza Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Tasei eta Prezio Publikoei buruzko Legearen Testu Bateginaren IV. Tituluaren X. Kapituluaren honela geratzen da:

“X. KAPITULUA

LANEAN EDO PRESTAKUNTZA-BIDE EZ-FORMALETAN LORTUTAKO LANBIDE-GAITASUNAK EGIAZTATZEKO ORDAINDU BEHARREKO TASA 95. DECIES ARTIKULUA. ZERGAPEKO EGITATEA

Tasa horren bidez, honako hauek ordainduko dira: aholkularitza-zerbitzu teknikoak eta lanean edo prestakuntza-bide ez-formaletan lortutako gaitasunak egiaztatze-probetan ebaluatzeko zerbitzu teknikoak.

95. undecies artikulua.- Subjektu pasiboa.

Aurreko artikuluan zehaztutako prozeduran parte hartze aurretik eta behin betiko izena ematen duten pertsona fisikoak izango dira tasa horren subjektu pasiboak.

95. duodecies artikulua.- Sortzapena.

Zerga-egitatea burutzen den unean sortuko da tasa. Prozeduraren fase bakoitzean aurretik izena emateko eta behin betiko izena emateko unean eskatuko da ordainketa egitea, subjektu pasiboaren autolikidazioaren bidez.

95. terdecies artikulua.- Kuotak.

Hauek dira tasaren kuotak:

1. Lan-esperientziari eta ikaskuntza ez-formalei esker lortutako lanbide-gaitasunak aitortzeko prozesuan aurretik izena emateko: 10,00 euro.

2. Aholkularitza-fasean izena emateko:

1. maila: 60,00 euro.

2. maila: 70,00 euro.

3. maila: 90,00 euro.

I. mailako titulu osoetarako: 90,00 euro.

II. mailako titulu osoetarako: 100,00 euro.

III. mailako titulu osoetarako: 110,00 euro.



3. Ebaluazio-fasean izena emateko:

Lehen mailako kualifikazioen kompetentzia-unitate bakoitzean: 12,00 euro.

Bigarren mailako kualifikazioen kompetentzia-unitate bakoitzean: 15,00 euro.

Hirugarren mailako kualifikazioen kompetentzia-unitate bakoitzean: 18,00 euro.

95. quaterdecies artikulua.- Salbuespenak eta hobariak.

1.- Prozeduran onartutako pertsona fisikoek ez dute inolako tasarik ordaindu beharko, baldin eta honako inguruabarren bat egiaztatzen badute:

a) Indarrean dagoen legediaren arabera zehaztutako kategoria bereziko familia ugariko kide direla.

b) Langabezian daudela eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko bulegoetan izena emana dutela enplegua eskatzeko.

c) Izena eman aurreko urte naturalean guztira izan dituzten diru-sarrerak lanbide arteko gutxieneko urteko soldataren parekoak edo txikiagoak direla.

d) Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen dutela.

e) Terrorismoaren biktima direla, legez hala onartuta.

f) Genero-indarkeriaren biktima direla edo izan direla.

g) Ehuneko 33ko edo hortik gorako desgaitasunen bat izatea tasa sortzeko unean.

2.- Prozeduran onartutako pertsona fisikoek edo juridikoek % 50eko hobaria izango dute – ezin metatuzkoa, betiere–, baldin eta honako inguruabarren bat egiaztatzen badute:

a) Indarrean dagoen legediaren arabera zehaztutako kategoria orokorreko familia ugariko kide direla.

b) Izena eman aurreko urte naturalean guztira izan dituzten diru-sarrerak lanbide arteko gutxieneko urteko soldataren %150aren parekoak edo txikiagoak direla».

AZKEN XEDAPENETATIK ZORTZIGARRENA.- Garapen eta exekuziorako gaitzuntasunak.

Baimena ematen zaio Eusko Jaurlaritzari, lege honen garapen eta exekuziorako beharrezkoak diren izaera orokorreko xedapenak eman ditzan bere eskumenen eremuan.

AZKEN XEDAPENETATIK BEDERATZIGARRENA.- Indarrean jartzea.

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.